



# Hirian jaialdiari esker larunbat honetan musika urbano onena entzungai Deustun

- 14:00etan hasiko dira emanaldiak, eta ia gauerdira arte luzatuko dira
- Guztira 17 kontzertu hiru agertokitan, Bilbao BBK Live jaialdi handiaren atariko

Aurten ere, Bilbao BBK Live jaialdirako giroa berotuko du Hirian ekitaldiak, musika izanik gizartearen eta kulturaren ardatz eta sarbide librearekin; uztailaren 11n, 12an eta 13an izango den **Bilbao BBK Live** jaialdia hiriraino ekarriko dugu Hirian ekitaldiarekin, itsasadarreraino, Deustu auzoa jaialdiaren espirituarekin kutsatzeko. Aurten, musika urbano nazionalaren adierazgarri onenetakoak ekarriko dizkigu. Deustun izango da hitzordua, datorren larunbatean, hilak 15.

Guztira 17 emanaldi izango dira San Pedro plazan kokatutako 3 agertokitan: bi agertoki Deustuko bihotzean dagoen San Pedro plazaren alde banatan egongo dira, hau da, bat frontoian eta bestea kioskoan. **San Pedro plazako Kioskoa** agertokian rock-a izango da nagusi: **Surfin' Bichos**, musika independente nazionalen lehen mailako erreferentziako bandetako bat, edo **Zea Mays**, zalantzarik gabe, musika euskaldunean talde garrantzitsuenetako bat. Talde horiekin batera, **Tremenda Jauria**, **Las Odio**, **Las Mambo Jambo** eta **Kumbia Queers** ere izango dira. Doinu urbanoak, aldiz, **San Pedro plazako Frontoia** agertokian bilduko dira: **La Zowi**, Estatuko musika urbanoan trap-queen garrantzitsuenetako bat; **Chico Blanco**, azken hilabeteetako berrikuntzetako bat edo **La Dani**, **Mitto Koronkon** gure artean ospe handia lortu duen MC bat; **Cruz Cafuné** lehen aldiz arituko da Bilbon; **Putochinomarción** eta musika elektronikoaren arloko artista handiak **Basoa in the city** gunean arituko dira, hala nola **Dave P** eta **Marc Piñol**, besteak beste.

Kumbia doinuak zuzeneko biziarekin uztartzen dituen **Kumbia Queers** talde argentinarra izango da lehena, 14:00etan **San Pedro plazako Kioskoa** agertokian, eta musikak ez du etenik izango ia gauerdira arte, **La Zowi** artistaren azken emanaldia **San Pedro Plazako Frontoia** agertokian amaitzen den arte.

**Hirian** ekitaldia jaialdi urbano ibiltari bihurtuko da Deustun, aurreko bi urteetan Bilbo Zaharrean izan ostean, eta oraingoan sarrera doakoa izango duen esperientzia kulturala beste auzo batera eramango dugu, auzoko jarduera ekonomikoa sustatzearren. Bilboko Udalarekin eta Heineken® etxearekin batera –historikoki Bilboko musikaren garapenarekin konprometituta egon izan baita–, Bilbao BBK Live jaialdiak musika-emanaldi jasangarriaren eredia sustatzen du, Bilboko kulturaren, gizartearen eta ekonomiaren arloetako garapenari bultzadaxo bat ematearren zuzeneko musikaren balioen bitartez.



[Press kit](#)

## **Programa osoa:**

**HIRIAN**  
**2019ko ekainak 15**  
**Deustu, Bilbo**

### **San Pedro plazako Frontoia**

14:00 KUMBIA QUEERS  
15:45 ZEA MAYS  
17:30 TREMENDA JAURÍA  
19:00 LAS ODIO  
20:30 LOS MAMBO JAMBO  
22:00 SURFIN' BICHOS

### **San Pedro plazako Kioskoa**

15:00 SARA ZOZAYA  
16:45 PUTOCHINOMARICÓN  
18:15 CRUZ CAFUNÉ  
19:45 MITTO KORONKON  
20:30 LA DANI  
21:30 CHICO BLANCO  
22:15 LA ZOWI

### **Basoa in the city**

15:30 BIHOTZA  
17:00 JUANITO JONES  
19:00 MARC PIÑOL  
21:00 DAVE P

Sarrera librea

Informazio gehiago:  
[bilbaobbklive.com](http://bilbaobbklive.com)